

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

### ENPLEGU, MERKATARITZA ETA TURISMO SUSTAPENAREN ETA FORU ADMINISTRAZIOAREN SAILA

**427/2021 Foru Agindua, azaroaren 8koa. Agintzea exekuta dadila Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 1 zenbakiko Epaitegiaren 380 epaia, 229/2018 prozedura laburtuan 2021eko uztailaren 9an emana**

Gasteizko Administrazioarekiko Auzietarako 1 zenbakiko Epaitegiak, uztailaren 9ko 380/2021 epaiaren bidez (azaroaren 3an irmo), baietsi egin du Oihana Santos Beistegui andreak jarritako errekurtsua, azaroaren 21eko 351/2016 Foru Aginduaren bidez (ALHAOren 133. zenbakia, 2016ko azaroaren 28a) ei egindako hautaketa proben ingurukoa, eta epai horren bidez aitortu du errekurtsogileak eskubidea duela oposizio aldiko bigarren ariketa gaindituzat edukitzeko eta hautaketa prozesuaren gainerakoar jarraitzeko.

Epaian exekuzioari buruz, uztailaren 13ko 29/1998 Legeak (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioarena) hau xedatzen du 103. artikuluan: "Alderdiak beharturik daude epaia bere horretan eta berak dioen moduan betetzera."

Bat etorritz honako hauetan ezarritakoarekin: Diputatuen Kontseiluaren uztailaren 30eko 154/1993 Foru Dekretua, zeinaren bidez funtzio publikoaren alorreko eskumenak ezarri baitziren, eta ekainaren 1eko 23/2021 Foru Dekretua, zeinaren bidez Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Sailaren egitura organiko eta funtzionala onetsi baitzen,

#### XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Atzera eramatea Arabako Foru Aldundiaren Administrazio Orokorreko karre-rako funtzionario gisa (administrazio bereziko eskala, azpieskala tekniko, erdi-mailako teknikarien klasea, nekazaritzako ingeniari tekniko) bide irekiaz sartzeko hautaketa prozesuko jardunak (haren deialdia azaroaren 21eko 351/2016 Foru Aginduaren bidez egin zen), bigarren ariketa kalifikatzeko unera, epaian adierazten denaren arabera.

Bigarrena. Hautaketa prozesuko epaimahaia berriz ere eratu dadila agintzea, uztailaren 9ko 380/2021 epaian adierazten denaren arabera bigarren ariketa horren kalifikazioa egiteko xedeaz, eta hautaketa prozesuaren gainerakoarekin jarraitu dadila deialdia egin zuen azaroaren 21eko 351/2016 Foru Aginduan ezarrita dagoenaren arabera.

Hirugarrena. Egin ziren karrerako funtzionarioen izendapenei eta hautaketa prozesutik sortutako lan poltsaren kudeaketan gaur egun arte egindako deiei eusteko kautelazko neurria hartzea, behin-behinekoz eta hautaketa prozesuaren emaitza berria erabakitzen den bitartean.

Kautelazko eta behin-behineko neurri hori kendu edo aldatu ahal izango da, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean xedatutakoarekin bat etorritz. Betiere, epaia exekutatzu egiten den balorazio berriaren emaitzaren arabera hautaketa prozesua erabakitzen denean azkenduko da eta, une horretan, emaitza horren arabera erabakiko da gai honi buruz bidezkoa dena.

Laugarrena. Aipatutako epaia betez foru agindu honetan ezarritakoari buruz, interesa dutenek abiarazi ahal izango dute uztailaren 13ko 29/1998 Legeak (Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioarena) 109. artikuluan epaien exekuzioari buruz adierazten duen intzidentea.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko azaroaren 8a

*Bigarren diputatu nagusiordea eta Enplegu, Merkataritza eta Turismo Sustapenaren eta Foru Administrazioaren Saileko foru diputatua*  
*CRISTINA GONZÁLEZ CALVAR*